

## **OHIZ KANPOKO OSOKO BIKURAI 07/14**

### **UDATAK 2014ko EKAINAREN 17AN EGINDAKO OHIZ KANPOKO OSOKO BIKURAREN AKTA**

#### **BATZORDEKIDEAK:**

##### **ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

##### **ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

##### **ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aiginaga jn.

Naiara Sanchiz Arregi and.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Begoña Zuza Zabalegi and.

M<sup>a</sup> Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sanchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2014ko ekainaren 17an ohiz kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantza Arrazola Iturbe idazkari ordea.

##### **KONTUHARTZAMEA:**

Aitor Sarasola Salaberria jn.

##### **IDAZKARI ORDEA:**

Arantza Arrazola Iturbe and.

1.- **AKTAK ONARTZEA:** 201402-25 ETA 2014-04-29. - 2014ko otsailaren 25ean egindako bilera aho batez onartzen da eta 2014ko apirilaren 29koa Iñaki Arratibelen abstentzioarekin onartzen da.

2.- **2014KO MAIATZAREN 23TIK 2014KO EKAINAREN 12RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** - 2014ko maiatzaren 23tik 2014ko ekainaren 12ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

\* Alkate jn.

\* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

- \* Kiroletako delegatu jn.
- \* Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- \* Politika Sozialeko delegatu jn.

**3.- 88/2013 ARRUNTA PROZEDURAN EAIEKO AUZITEGI NAGUSIA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SAIA 1. SEKZIOAK 121/2014 EPAIAREN BERRI EMATEA. ERREKURTSOA 2013KO TELEFONIA MUGIKORAREN TASAREN ORDENANTZAREN KONTRA JARRI ZUEN FRANCE TELECOM SAK. -** Batzordeak izan du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 121/2014 epaiaren berri, Jabetza Publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia erregulatzen duen 2013ko ordenantza fiskalaren aurka France Telecom Sak aurkeztutako 88/2013 zenbakiko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa dela eta

Udalbatzarrari Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 121/2014 epaiaren berri ematea, Jabetza Publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia erregulatzen duen 2013ko ordenantza fiskalaren aurka France Telecom Sak aurkeztutako 88/2013 zenbakiko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa dela eta

Hona hemen:

*“ Que desestimamos el recurso contencioso interpuesto por la Procuradora de los Tribunales Doña María Álvarez de Amezaga en representación de “FRANCE TELECOM ESPAÑA S.A.U”, contra la modificación ordenanza de la tasa por la utilización privativa y el aprovechamiento del dominio-publico municipal con los servicios de telefonía móvil de Ayuntamiento de Hernani, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa N° 248, el 31 de diciembre de 2012, con imposición a la recurrente las costas de este procedimiento*

**4.- PORTU AUZOKO LURSAIL BATEN ALOKAIRU KONTRATUA BERRITZEA, JOLAS ETA AISIALDI GUNERAKO ERABILTEKO DENA, HERNANIKO UDALAREN ETA “ADIF-INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS” EN ARTEKOA. -** Portu auzoan jolas eta aisialdirako erabiltzen den lursail bat alokatzeko kontratua sinatu zuten 2006ko ekainaren leian., Hernaniko Udalak eta Renfeko Ondasun eta Hirigintza Sailak , 8 urtetarako iraupena zuen kontratuak, 2014ko maiatzak 31 arte (2006ko uztailak 28ko Udalbatza).

Adif-ek kontratua amaitzeko edo berritzeko aukera eskeiniz idatzia aurkeztu du.

Gobernu Taldeak lur hori erabiltzen jarraitzeko beharra eta kontratua berritzeko nahia adierazi du.

Kontuan hartuta Kontratazioko Teknikariak egindako txostena.

Aztertu da Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzorde Bereziak, 2014ko ekainaren 11an emandako irizpena.

13 bozka aldekoekin, aho batez hau erabaki da:

1.- Adif eta Hernaniko Udalaren artean 2006ko ekainaren leian sinatutako Portu auzoko lursail bat jolas eta aisialdi gunerako erabiltzeko alokairu kontratua berritzea beste zortzi urtez, hau da, 2014ko ekainak 31etik 2022ko maiatzak 31 arte., 350 euroko (BEZa aparte) errenta ordainduz.

2.- Luis Inzauspe Arozamena alkate jaunari kontratua sinatzeko ahalmena ematea

**5.- EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIKO AURREKONTU AIDAKETA. TRANSFERENTZIA BIDEZKO 2014-KAD-000002-00 ESPEDIENTEA. - EREÑOTZU Toki Entitate Txikiko Auzo Batzarrak, 2014(e)ko ekainaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, hartu zuen transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2014-KAD-000002-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena**

Toki Entitate Txiki honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenean adierazten du aipalutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Auzo Alkateak egindako onarpen proposamena irakurri da.

Aztertu da Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzorde Bereziak, 2014ko ekainaren 11an emandako irizpena.

13 bozka aldekoekin, aho batez hau erabaki da:

Iheneongo.- Hasierako onarpena ematea Ereñotzu Toki Entitate Txikiaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 2014-KAD-000002-00 zenbakidun espedienteari, kreditu transferentzien modalitatekoa, dirulaguntza zuzenak emateko, proposamenean ageri den partida eta dirulaguntza xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1	PERTSONALGASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARKUNTETA ZERBITZUETAN	224.868,00	31.192,14	193.675,86
3	FINANTZA GASTUAK			
4				
6	TINBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	<b>GUZTIRA</b>	<b>224.868,00</b>	<b>31.192,14</b>	<b>193.675,86</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1	PERSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNTETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	0,00	31.192,14	31.192,14
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>31.192,14</b>	<b>31.192,14</b>

Eranskina. Partida berriaren xehetasuna:

1-0100.481.01.449.90-2014-Dirulaguntza zuzenak:

<b>Onuraduna:</b>	<b>Proiektua:</b>	<b>Kopurua:</b>
OLAK Auzo Elkarte	Urteko ekintzak	16.000,00 €
UR-MIA Elkarte	Santa Ageda ospakizunak	508,00 €
DOBERA Euskara Elkarte	Urumeako Kronika	3.000,00 €
ARRANZADI Zientzia Elkarte eta DOBERA Euskara Elkarte	Burbunak eta etsayak	7.431,00 €
Victor Ocio Madina eta besteak	Ur hartunea (Igerola)	1.253,14 €
Francisco Iarrarte Leonet	Ur hartunea (Añua)	3.000,00 €
	<b>Guztira:</b>	<b>31.192,14 €</b>

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan jasotako informazio eta jendaurreko tramiteak betez. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrekontu aldaketa behin betiko onetsizat joko da; bestela Udal batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.”

**6.- HERNANIKO OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUAREN AURREKONTU ALDAKETA. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO 4/2014 ESPEDIENTEA.** - Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak, 2014ko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran akordioa ikusi da, 2014ko aurrekontuan kreditu gehigarriaren bidez egingo den 4/2014 zk.ko kreditu aldaketarako espedientea.

*Espediente horren helburua da mantentzeko hainbat lan egitea Patronatuak dituen bi etxebizitza hauetan: Antziola auzoa 64, 3. esk. eta Kardaberaz kalea 39, 2. ezk.. Mantentze lanak etxebizitzak gizarte zerbitzuan erabiltzeko egingo dira. Kreditu aldaketa hori honako partidak handitzeko izango da:*

*- 1 0101.211.01.313.06 2014 “Konponketak, mantenua eta artapena: eraikinak eta bestelako eraikuntzak” . Gizarte Etxebizitzak: 11.000,00 euro.*

*- 1 0101.212.01.313.06 2014 “ Konponketak, mantenua eta artapena: makineria, instalazioak eta tresneria” . Gizarte Etxebizitzak: 12.000,00 euro.*

*- 1 0101.226.99.313.06 2014 “ Beste hainbat gastu” Gizarte Etxebizitzak: 8.500,00 euro.*

*Kudeatzaileak txostena egin du.*

*Udalbatzarrak onetsitako lotura juridikoko mailan finantzatzera destinatutako aurrekontu partidetan ez dago nahiko kreditu erabilgarririk, zerrendatutako gastuak proposameneko kopuruan gauzatu ahal izateko. Era berean, aldaketa proposamenean ageri diren ordainketa kredituak ezin izango dira kreditu zabalgarri gisa kalifikatu.*

*Eragindako Aurrekontuan proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko, bidezkoa da kreditu gehigarrien espedientea erabiltzea eta izapidetzea. Izan ere, zeren Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 34.1. artikuluan eta 2014. urteko Aurrekontuaren Gauzatzeko Arauak 5.5 artikuluan hondar izaera ematen badiote ere, ezinezkoa baita proposameneko gastuak aipatutako araudian jasotako gainerako kreditu aldaketarako modalitateen bidez estaltzea.*

*Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.*

*Proposatutako ordainketarako, aurrekontu kredituen gehikuntzek nahiko finantzaketa badute, aipatutako Foru Arauaren 34.2b) artikulua eta 2014. urteko Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 5.5.2 artikulua adierazitako baliabideetatik datorrena.*

*Zerrendatutako gastuen beharra eta premia behar bezala egiaztatuta dago, lehendakariaren txostenean espresuki jasota geratu baita eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ateratzen baita.*

*Kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onesteko eskumena Udalbatzarrena da, aipatutako Foru Arauaren 34.3. artikuluan eta 2014. urteko Aurrekontuaren Gauzatzeko Arauaren 5.5.4 artikuluan ezarritako zuzeneko eskurantzaren indarrez, eta Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak aplikagarriak zaizkio.*

*Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2014rako ezarritako defizit helburua eta gastu araua. Halabaina, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu denez, planaren ordeztu, 1/2013 For Arauaren 5. artikulua hiruugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egiten zaio Udalbatzari, egoera horren berri emanez. Halaber, kreditu aldaketak aztertu ondoren, bertan jasotzen diren gastu kreditu handitzeak ez dutela datozen urteetako udal aurrekontuen finantza egonkortasuna baldintzatzen.*

*Aztertu da Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzorde Bereziak, 2014ko ekainaren 11an emandako irizpena.*

*13 bozka aldekoekin, aho batez hau erabaki da:*

- 1.- Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren 2014ko aurrekontuan kreditu gehigarrien bidez egingo den 4/2014 zk.ko kreditu aldaketaren espedienteari hasierako onarpena ematea, proposatu denaren arabera eta ondoren kapituluka jasotzen den laburpenaren arabera:*

### **KREDITU GEHIKUNTZA**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntza</b>
2	Gastuak, ondasun arruntak eta zerbitzuak	31.500,00€
	<b>GEHIKUNTZA GUZTIRA</b>	<b>31.500,00€</b>

### **FINANTZATZEKO BAI LABURPENAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntza</b>
8	Finantza-aktiboak	31.500,00€
	<b>GUZTIRA</b>	<b>31.500,00€</b>

- 2.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost lanegunez, nahi dutenek azter dezaten eta Udal Batzarrari erreklamazioak aurkez diezazkioten. Aipatutako epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrekontua behin betiko onetsitza joko da; bestela, Udal Batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.*

- 3.- Honen bidez, 1/2013 For Arauaren 5. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egitea Udalbatzari, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2014rako ezarritako defizit helburua eta gastu arau ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu baita.*

- 7.- "GARBIANIMA ZERO LABOR SL"-KO KAPITAL MURRIZTEA ETA HERNANIKO UDALAREN PARTIZIPAZIO SAIMENTA. - Zalantza batzuk daudenez mahai gainean geratzen da.*

**8.- UDAL ORDENANTZEN 11. LIBURUAREN X. TITULUAREN HASIERAKO HASTAPENA: HIRIGINTZA LIZENTZIAK NOLA ESKATU, NOLA IZAPIDETU ETA HORIEN EXEKUZIOA NOLA KONTROLATU BEHAR DEN ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.** - Hernaniko Udalak 2011ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuran Udal Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina behin betiko onestea erabaki zuen. Aipatutako planeamendu orokor horretan jasotzen den araudiak ez ditu arautzen tresna horren berezko hedadura eta izaeratik kanpo gelditzen diren gaiak, eta indarreko hirigintza-legeriak aurreikusten du Udal Ordenantzen bitartez arautu beharko direla horiek zehazki.

Testuinguru horretan, Hernaniko Udalak beharrezko eta egoki ikusi du Udal Ordenantza Multzoa idazteari ekitea, eta horren helburua hainbat artotako gaiak arautzea izango da, udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorraren eskaerari erantzunez, Hirigintza Arau Orokorretan nola Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Garapenerako Planeamendu Programan berariaz aurreikusita dagoen moduan.

Zenbait arrazoiengatik, beharrezko eta egoki ikusi zen Ordenantza Multzoaren idazketa eta izapideak fase independenteetan banatzea. Hala, 2013ko martxoaren 26an, Hernaniko Udal Batzarrak lanaren lehen zatia hastapenez onestea erabaki zuen, hau da, "Hernaniko Udal Ordenantzen 1 - Liburua". Behin betiko onarpena 2013ko martxoaren 28an eman zion eta 2013ko ekainaren 19ko argitaratu zen G70n.

11. Liburu hau gaur egun prestakuntza-aldian dago, baina zerbitzuetako jarduerak libreki erabiltzeari eta gauzatzeari buruzko indarreko legeria bete beharrezkin loturiko presazko arrazoiak direla medio, eta halaber, udal administrazioaren funtzionamenduan hobekuntza batzuk abian jarri behar direnez gero (herritarren harrera zerbitzua edo leihatila bakarra), Udalak beharrezko ikusi du bi zatitan banatzea 11-Liburua honen edukia, era horretan aurreikusitako Hamargarren Titulua (X) izapidetzea eta indarrean sartzea azkartuko baita, hots, "Hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza".

Kontuan hartu dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 60. eta 75 artikuluek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.d eta 47 artikuluek ezarritakoa.

Aztertu da horri dagokionez egindako txosten juridikoa.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2014ko ekainaren 9an emandako irizpena.

Alkate jaunak bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aaldeko botoak: 12 (8 Bildu, 2 Euskal Sozialistak eta 2 EAJ/PNV).
- Kontrako botoak: bat ere ez.
- Abstentzioak: 1 (HI!)

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

**Lehena:** hastapenez onartzea Udal Ordenantzen 11. Liburuaren X. Titulua, hots, Hirigintza lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza.

**Bigarrena:** espedientea eta, ondorioz, hastapenez onartutako ordenantza, jendaurrean ikusgai jartzea, hogeita hamar egunez, iragarkia udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian jarriz nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horretan espedientea Hernaniko Udaleko Hirigintza Sailean egongo da ikusgai. Interesatuak beren eskubide eta interesen defentsarako bidezko jotzen dituzten

alegazioak jartzeko aukera izango dute epe horretan.

**Bigarrena:** ordenantza behin betiko onartutzat ematea baldin eta jendaurrean ikusgai egondako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Toki Araubidearen Dinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49. artikulua c) 2 atalak xedatzen duenaren arabera, eta, hala gertatuz gero, ordenantzaren testu osoa GADn argitaratzea.

## **9.- SANTA MARIA MAGDALENA ZAHARRREN EGOTZA HANDITZEKO ETA ARAUTEGI FORALARI EGOKITZEKO EGINDAKO OBRA. ABALA ITZULTZA DEKRETUAREN BERRESPENA.**

**DEKRETUA.-** Hernanin, bi mila hamalauko maiatzaren hogeita hamarrean.

2013ko irailaren 24ko Osoko Bilkuraren akordio bidez Sta. Maria Magdalena zaharren egoitza handitzeko eta arautegi foralari egokitzeko egindako obra kontratuan, garantia epean alzemandako akatsak konpontzeko nahitaezko exekuzio prozedura hasi zen, bere garaian Construcciones Amenabar S.A.k kontratistak aurkeztu zuen bermeetako bat (46.136,63 €koa) erretenituz .

Egin beharreko lanak udal arkitekto teknikoaren txostenetan zehaztuta eta baloratuta zeuden, azaroaren 15eko azken txostenean.

2013ko Azaroaren 20an Construcciones Amenabar S.A.k idatziz aurkeztu zuen txosten teknikoak zehaztutako konponketak egiteko konpromisoa, lanok hilabete bateko epean egingo zituela adieraziz.

2014ko abenduan, nahitaezko prozedura etetea erabaki zen, kontratistaren konpromisoa betetzen zela ziurtatu bitartean (2013ko abenduak 4-ko Alkate Dekretu bidez, abenduak 17ko Osoko Bilkuran berretsia).

Udal arkitekto teknikoak, 2014ko maiatzaren 14ko datarekin txostena egin du, enpresak konprometitutako lanak egin dituela eta gelditzen den abala itzultzearen aldekoa.

Aztertu da Kontratazio Teknikariak, 2014ko maiatzaren 22ko datarekin egindako txostena.

2014ko maiatzak 26ko Hirigintza batzordearen diktamena aztertu da.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

**LEHENA.-** Sta. Maria Magdalena zaharren egoitza handitzeko eta arautegi foralari egokitzeko egindako obra kontratua burutzeko CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.k jarritako fidantza itzultzea-(46.136,63 €koa) .

**BIGARRENA.-** 2013ko irailaren 24ko Osoko Bilkuraren akordio bidez hasitako nahitaezko exekuzio prozedura amaitutzat ematea.

**HIRUGARRENENA.-** Erabaki hau hurrengo Plenora eramatea, bere berrespenerako.

13 bozka aldekoekin, aho batez hau berreztea erabaki da:



**10.- KARDABERIZ KALEARI ANDREKALE IZENA JARRI.** - Hurrengo bilkurako esekirik geratzen da.

**11.- IOMCERIN GABEKO HERRIA.** -

**Alkatea**

*Uste dut hemen Hernaniko IOMCERik gabeko herriko plataformako-edo guraso-irakasle, bueno, interesatu ezberdinak zaudetela, orduan zuena da hitza, hor duzue mikrofonoa.*

**Maritxu**

*Atsaldeon; Iomce topaguneko kide desberdinak daude hemen, bai adin batekoak baita ere etorkizunekoak ere. Beraz iruditzen bazaizue, mozioko testua irakurriko dizuegu. Moziorearen izenburua da Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki. IOMCERik gabeko herria.*

*“Hezkuntza eskubide unibertsala da, pertsona ororen eskubidea alegia.*

*Eskubidea unibertsala den heinean, administrazioarena da eskubidea bera bermatzearen ardua; eskubidea bermatzen dela ziurtatzea gizarte zibilaren ardua den moduan.*

*Eskubidea izateko, hezkuntzak ikasle guztion garapen osoa bermatuko duen heziketa behar du izan. Parte hartzailea, askatzailea, hezkidetzakoa, inklusiboa, demokratikoa, anitza, integratzailea....*

*Azkenengo urteetan ordea, oso bestelakoa izaten ari da hartutako norabidea eta IOMCE hezkuntza erreformak bide antzu jorratu besterik ez du egingo.*

*IOMCEk oinarrizko hezkuntza eskubideari erasotzen dio eta horregatik bere kontra agertu da Euskal Hezkuntza Komunitatea, eskola inklusiboa baztertzen duelako, autoritarioa delako, segregatzailea delako, euskara eta euskal kultura heriotzara kondenatzen dituelako, familien eta herritarren parte hartzearen kontra doalako, erlijioa inposatzen duelako, ikasleen berezitasunen errealtateak urrun dagoen hezkuntza inposatu nahi duelako, sistema merkantilista baten beharrei erantzun nahi diolako eta abar eta abar.*

*IOMCE hezkuntza eskubidearen kontra eraso argia da, hezkuntzaren oinarrizko printzipioen kontra doalako eta gizartearen nahiaren kontra inposatu nahi delako. Hezkuntza, eskubidea izateari erasotzen diona alegia. Eta eraso administrazioaren aldetik etorrila (eskubide bermatzaile paperari uko eginda); guztion ardua da eskubidearen defentsa. Horregatik Euskal Herriko herri ezberdinetako plataforma eta talde ezberdinek bat egin dugu eta IOMCERik GABEKO HERRIA dinamika abiatu dugu.*

*IOMCERik GABEKO HERRIA dinamika hezkuntza komunitateko eta norbanakoen konpromisoerik esker aurrera eraman nahi da. Gure gelak eta ikastetxeak IOMCERik gabeko guneak izateko, hezkuntza komunitateko kideek horrela adostuta.*

*Besterik IOMCERik GABEKO HERRIA dinamikaren bidez, Euskal Herria Hezkuntza Sistema Propioa eraikuntzan kokatzen dugu, hezkuntza eragilearen gehiengoaren eskaerei jarraituz.*

*Alkate jaunak bozketa egin du. Hau da emaitza:*

- Aldeko botoak: 11 (8 Bildu, 2 EAJ/PNV eta 1HI!)
- Kontrako botoak: bat ere ez.

- *Abstentzioak: 2 Euskal Sozialistak .*

*Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:*

1.- *Udal hau, IOMCE hezkuntza erreformarekin erabat aurka agertzen da, hezkuntza eskubidearen kontrako eraso argia delako.*

2.- *Udal honek gure Hezkuntza propioa garatzeko bidean, indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeiko konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasun baitan:*

*\* Ikasleen garapen, behar eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzaila, kritikoa, laikoa....) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.*

*\* Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.*

*\* Curriculum propioa izango duena.*

*\* Heziguneen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatu duena.*

*\* Euskal Herrirako hezkuntza marko normatibo propioaren alde egingo duena.*

3.- *Udal honek ikastetxeetan IOMCEn ez aplikazioan indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeiko konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasunen baitan:*

*\* Ikastetxearen gestioa, eskola komunitate osoaren ardura izango da, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa ziurtatzeko.*

*\* Euskara ardatza izango da hezkuntzan, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko.*

*\* Ikaslea hezkuntza prozesuan eskubidedun subjektu aktibo nagusi gisa aitortuko da.*

*\* Aukera berdintasuna bermatzeko, ikasleen arteko sailkatzea eta mailakatzea saihestea, baita ibilbide orokorretik ateratzea emaitza akademiko jakin bat lortzen ez duten ikasleak (Oinarritzko Iarabide Heziketa).*

*\* IOMCEk ezartzen duen ebaluazioen emaitzak publiko egin nahi izatea salatzeiko eta ekiditeko.*

*\* Irakasleen lan-tresna gisa curriculum propioa izatea ahalbidetzeko.*

4.- *Udal honek, maila pertsonalean hasi eta kolektiboan garatuak izan beharko diren IOMCEn kontrako konpromisoak bere egiten ditu eta IOMCERIK GABEKO HERRIA DINAMIKARI bere babes osoa ematen dio eta IOMCERik gabeko Herria izendatzeko proposamena onartzen du eta ondoren bertako herritarrei jakinaraziko die, 2014-15 ikasturte hasieran udalerriko eskola guztiei udal bandoa bidaliz."*

*Aurreko guztia dela eta, IOMCE sutarak Hernaniko Udaltzari mozio hau aurkezten dio eztabaidatu eta onartu dezan, ondoko puntuetan gauzatzen delarik:*

1.- *Udal hau, IOMCE hezkuntza erreformarekin erabat aurka agertzen da, hezkuntza eskubidearen kontrako eraso argia delako.*

2.- *Udal honek gure Hezkuntza propioa garatzeko bidean, indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeke konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasun baitan:*

*\* Ikasleen garapen, behar eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzaila, kritikoa, laikoa....) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.*

*\* Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.*

*\* Curriculum propioa izango duena.*

*\* Heziguneen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatu duena.*

*\* Euskal Herrirako hezkuntza marko normatibo propioaren alde egingo duena.*

3.- *Udal honek ikastetxeetan IOMCEn ez aplikazioan indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeke konpromisoa hartzen du, hurrengo lehentasunen baitan:*

*\* Ikastetxearen gestioa, eskola komunitate osoaren ardura izango da, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa ziurtatzeko.*

*\* Euskara ardatza izango da hezkuntzan, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko.*

*\* Ikaslea hezkuntza prozesuan eskubidedun subjektu aktibo nagusi gisa aitortuko da.*

*\* Aukera berdintasuna bermatzeko, ikasleen arteko sailkatzea eta mailakatzea saihestea, baita ibilbide orokorretik ateratzea emaitza akademiko jakin bat lortzen ez duten ikasleak (Oinarrizko lanbide Heziketa).*

*\* IOMCek ezartzen duen ebaluazioen emaitzak publiko egin nahi izatea salatzeke eta ekiditeke.*

*\* Irakasleen lan-tresna gisa curriculum propioa izatea ahalbidetzeko.*

4.- *Udal honek, maila pertsonalean hasi eta kolektiboan garatuak izan beharko diren IOMCEn kontrako konpromisoak bere egiten ditu eta IOMCERIK GABEKO HERRIA DINAMIKARI bere babes osoa ematen dio eta IOMCERik gabeko Herria izendatzeko proposamena onartzen du eta ondoren bertako herritarrei jakinaraziko die, 2014-15 ikasturte hasieran udalerriko eskola guztiei udal bandoa bidaliz."*

*Eskerrik asko entzuteagatik.*

*Alkatea*

*Eskarrik asko zuei.*

*Ohar txiki bat, jakin dezagun denok, besterik gabe. Hemendik aurrera hurrengo 5-6 puntuetan mozioak ditugu, orduan pazientzi pixka batekin hartuko dugu, hainbat mozio baditugu eta.*

*Orain IOMCERik gabeko herrian inguruko mozioan, ez dakit, norbaitek zerbait azaldu nahi duen, galdetu nahi duen. Ez. Orduan bozkatzera pasako gara. Bai. Mizioaren alde, bai, M<sup>a</sup> Jesus?*

**M<sup>a</sup> Jesus**

Bueno, irakurri eta aurkeztu den mozioak dioena ikusita, guk argi utzi nahi genukeena da lehenengo momentutik IOMCEn kontra gaudela, hortaz ez dago inongo zalantzarik, baina bai iruditzen zaigu pixka bat arraroa edo bitxia Eusko Jaurlaritzak Heziberri2020 programa izanik, zeinetatik hainbat termino ezabatu baitira, adibidez sistema propioa edo curriculum propioa, ba, egin nahi dugun bakarra da Eusko Jaurlaritzarekin bat etortzea. Hasiera batean gu bat gatoz mozioaren edukiarekin, baina gustatuko litzaiguke ahal dela terminologia hori ezabatzea, IOMCEn kontra eta Eusko Jaurlaritza aurrera eramaten ari den Heziberri programak erabiltzen duenarekin kontraesanean ez aritzeko. Eta azkeneko puntuan, laugarrenean, puntu hori ezabatu nahiko genuke. Orduan ez genuke inolako arazorik mozioa erabat babesteko. Bestela, aldatu nahi ez izatea gertatuz gero, abstenitu egingo ginatke; baina funtsean, edukia erabiltzen zati handienarekin bat gatoz.

**Alkatea**

Bai, Maritxu?

**Maritxu**

Esan behar da Eusko Jaurlaritzak orain arte IOMCEn gainean burutu duen dinamika, alde batetik ez dala izan IOMC legeak dituen ezaugarriak kolokan jartzearena, 1. bai. 2. Horren gainean egiten ari dana da, gaiaz gai eta ez gai guztien inguruan helegiteak sartzen ari da baina dagoeneko helegite batzuen emaitza Espainiako Tribunal Konstituzionalean dagoeneko erantzuna emana du, hain zuzen adibidez, zuzendaritza dekretua, testu liburuaren aplikazioa, IOMCk ezarriko dituen edukien inguruan ez dago aurrepausorik, eta heziberri programa unean ez dago bukaturik. Ez da indarrean jarriko datorren ikasturtean, Eusko Jaurlaritzak emandako informazio formalean 2015-16rako litzake lehenengo pausoa edo lehenengo aplikazioa, ez du kolokan jartzen IOMC legean hemen mozioan aipatzen ditugun ezaugarri nagusien inguruan ezer, dagoeneko eta badakizue bueno ikastetxe gehienetan testu liburuak erabiltzen dira oinarri moduan, bai? ikasle bakoitzak bere testu liburuak ditu eta dagoeneko eta heziberri programak bere gainean hartzen ez duen beste dekretu bat ezarriko da datorren 14ko irailean non testu liburu berriak ezarriko dira bai ala bai lehen hezkuntza eta 2. mailako ikasleengan.

Beraz, e, bale, agian hitzen batekin egon daiteke ez dakit zer, baina sistema propioa, curriculum propioa aipatzen direnean, hemen Erkidegoan, hemen Hego Euskal Herrian, dagoeneko duela 12 urte eragile asko lanean ari dira euskal hezkuntza proiektu baten inguruan. Haiak egin dituzten ekarpenak Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza heziberri garatu edo proposatu edo osatu duenean ez ditu aintzat hartu, beraz, gizarteko sektore zabal bat kanpoan utzi du, ekarpenen mailan diot, e, eta batak ez du bestea kentzen.

Etorkizuneko sistema propioan mota desberdinetako pentsaerek dute kabida, bai, egun definitu gabe dagoelako. Beraz, ezin dut ulertu horrekiko duzun kaxotzen arteko hori. Berez, egun definitu gabe baitago, bai?, eta inork eta are gutxiago topaguneko kideok ez dugu kolokan jartzen gizartean lanean ari diren eragile guztion ekarpenak kontuan izanik osatuko dugula hezkuntza sistema propio hori. Orain arte azkeneko 4 hamarkadetan egin dan modu berean. Baina IOMCk, hain zuzen, horien guztien kontra doa eta Heziberri ez doa horien guztien alde.

**Alkatea**

Ez dakit honen inguruan bestelakorik badagoen, printzipioz, eskaera izan da, planteatu da 4.puntu hori kentzea, zuek mantendu egingo zenukete eta bere osotasunean bozkaluko dugu mozioa, bale?

- *Aldeko botoak: 11 (8 Bildu, 2 EAJ/PNV eta 1HI!)*
- *Kontrako botoak: bat ere ez.*
- *Abstentzioak: 2 Euskal Sozialistak .*

*Beraz, onartua geratu da.*

## **12.- ESATEKOKO MOZIOA. -**

### **Alkatea**

*Esatek planteatutako mozioa, hemen deskordinazio bat izan gendula medio, aurreko plenora etorri ziran beraiek gaurkoan ezin izan dute etorri eta Beñatek irakurriko du mozioa.*

### **Beñat**

*Bai, deskordinazioa nere erruz izan zen e, ordun gaur nik irakurriko det.*

*“Hernaniko Udalak, Hernaniko herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:*

- 1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapel-ketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.*
- 2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.”*

### **Alkatea**

*Mozio honen inguruan, badago ekarpenik edo? Bestela, bozkatzera pasako gera.*

- *Aldeko botoak: 11 (8 Bildu, 2 EAJ/PNV eta 1HI!)*
- *Kontrako botoak: bat ere ez.*
- *Abstentzioak: 2 Euskal Sozialistak .*

*Beraz, onartuta geratzen da.*

## **13.- UDALZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA. -**

### **Alkatea**

*ElA sindikatuak aurkeztua, eta bere ordezkaria hemen dagoenez, zurea da hitza. Mikrofonoa bai, hobeto.*

### **ElAko ordezkaria**

*Ez, ElAk bueno Eusko Jaurlaritzan sartu du mozioa baita ere eta udaletxez udaletxe egondu da. Pixkat irakurriko dizuet eta laburbilduz gainera, ze nahiko luzea da.*

### **MOZIOA**

*“Hernaniko udaleko El Aho Atal Sindikalak, bere afiliatu direnen ordezkari izanik udaleko talde politikoei ondorengo MOZIO hau zuena egin eta plenuen eztabaida eta bozketarako aurkezteko eskatzen du.*

#### *UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA*

*Jakingo duzuen moduan, 2008 urtean (martxoaren 14ko 383/2008 Erret. Dekretua), Suhiltzaileek, 60 urterekin jubilatu ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren egoerak kontutan hartuta.*

*Era berean, 2009 urtean, EAJ-PNV eta PSOEk Madrilgo Parlamentuan eginiko akordio baten bitartez, Ertzaintzarentzako 60 urterekin aurrejubilatzeko eskubidea lortu zen, hau ere, poliziek egiten duen lanaren ezaugarriak kontutan hartuta. Akordio honek, 2010ean izan zuen efektu data, Seguritasun Sozialaren gaien materialak arautzen dituen abenduaren 4ko 40/2007 Legearen, jubilatzeko adinean aplikatzen diren murrizketa koefizienteen ingurukoan zuzenki, aldaketa batzuk sartuta.*

*Ulegaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia Legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontutan hartu. Lege horrek argi esaten du, EUSKAL POLIZIA, Ertzaintzak eta Udaltzaingoei osatzen dutela eta bi poliziek egiten duten lana antzerakoa dela, bai funtzioetan, baita gaitzuntza profesionaletan ere.*

*Lege aldaketa hau justua eta behar beharrezkoa zen, izan ere polizia ogibidea, bereziki zaugarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrezkoa zela argi utzi batzuen. Egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrak bere 161. 1 bis artikuluan babesten du, “bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasunaren kallerako” diren ogibideen eta “heriotz tasa altuak” dauzkaten ogibideak koefiziente murriztaile hauek aplikatuko zaizkiela.*

*Esandako koefiziente murriztaileak aplikatzeak, sektorean dagoen penositate, arrisku eta toxikotasunaren gaineko lanak egitea exijitzen du, langileek izaten dituzten behin behineko ezgaitasunetan dauzkaten eragina eta esandako lana egiteko eskatutako baldintzen gaineko lanak egitea ere exijitzen du.*

*Unibertsitate ezberdinek, udaltzainen eta polizia autonomikoen inguruan egin dituzten ikerketen arabera, arrisku eta penositate zantzuak daudela esaten dute eguneroko lanean eta lanpostu hauetara sartzeko eta eguneroko lana normallasunez egiteko eskakizun psikofisikoak kontutan kontutan hartuta, adin batetik aurrera ezin dela lanpostu honetan normallasunez lan egin ere esaten dute. Era honetan, legediak jubilatzeko murrizketa koefizienteak izateko baldintzak guztiz betetzen dira.*

*Polizia lana arriskutsutzat jotzen den lana dela inork ez du eztabaidatzen jada, menpe dagoen instituzioa edozein izanda ere; Legediak, eginiko ikerketa lanek, lanean adinean aurrera joateak daukan eragina (batez ere hiri handietan), etab. Jubilatzeko adina aurreratzearen alde egiten dute.*

*Europa erreferentzialtzat hartzen badugu, herrialde gehienetako polizien erretiratzeko baldintzak moztu honetan eskatzen denaren ildoan daude: Alemanian, 55 eta 60 urte artean jubilatzen dira; Belgikan 54 urtetik aurrera; Grezian 55 urterekin; Ipar Irlandan 35 urteko aintzinasuna hartzean; Italian, Norvegian bezala, 60 urterekin eta Erresuma Batuan 57 urterekin.*

*Oreka ekonomiko eta finantziarioari begiratu gero, aipaturiko legeak (Gizarte Segurantzako gaien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea) bere bigarren xedapen gehigarrian, erretiro adinerako koefiziente murriztaileen inguruan zera esaten du: “El establecimiento de coeficientes reductores de la edad de jubilación, que sólo procederá, cuando no sea posible la modificación de las condiciones de trabajo, conllevará los ajustes necesarios en la cotización para garantizar el equilibrio financiero”. Gizarte Segurantzaz egin beharreko*

*doikuntza horiek, Udaltzainek beraiek eta lana egiten duten administrazioek bere gain hartu beharko dituzte, Gizarte Segurantzara egin beharreko beraien atxikipenak handituz.*

*Ildo honetan, kostuen inguruko ikerketa aktualek, neurri hau hartzeak ekartzen dituen onuren inguruko edozein zalantza bertan behera uzten du. Udaltzainen erretiro adina aurreratzeak dakartzan Gizarte Segurantza kostuak igoko balira ere, plantillen gaztetzea ekarriko luke nahitanahiez eta ondorioz, absentismo eta behin behineko ezgaitasunen gutxitzea. Langile ta zerbitzuen errendimendua hobetzea ekarriko luke honek eta era berean hiritarrei zerbitzu hobe bat eskaintzeko puntu hobean jarriko luke instituzioa, baldintza psikofisiko hobeak izateak, Hiritarrentzako Segurtasunean eragin zuzena dauka eta.*

*Gainera, gogoratu behar dugu apirilaren 12ko 1/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatuak, zera esaten duela bere seigarren xedapen gehigarrian: “(.....) el Gobierno presentará en el Congreso de los Diputados un estudio sobre los distintos regímenes de acceso a la jubilación de los funcionarios que contenga, entre otros aspectos, recomendaciones para asegurar la no discriminación entre colectivos con características similares y la conveniencia de ampliar la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada de determinados colectivos (.....)”.*

*EAEko datuei begiratuta, udalerrri guztiak kontutan hartuta dauden 3.300 udaltzain ingurutik, 500 baino gehiagok 60 eta 65 urte bitartean edukiko dituz hurrengo bost urteetan, hau da %17a lehenago jubilatzeko adinean egongo da eta beste 600 baino gehiagok 55 urte baino gehiago izango dituz.*

*Hernani-ko udalaren kasuan, hurrengo 5 urteetan 4 udaltzainek 55 urte eta 59 urte bitartean izango dituzte.*

*Udaltzainen aurre jubilazio honek, gainera, enplegu sorrera garrantzitsua ekarriko luke, gazteei lan merkaturako sarrera ahalbidetuko lioke, eta hau, enplegu sorrera izan beharko litzateke edozein instituzio publikoren oinarri garrantzitsuenetako bat. Azpimarratu behar dugu, aurre jubilazio honen helburua inoiz ezin dela izan lanpostuen amortizazioa, eta lanpostu horrek duina, egonkorra eta kalitatezkoa beharko lukeela.*

*Gainera, langileen gaztetzea ere ahalbidetuko luke, instituzioek langile aktiboagoak izango litzateke eta honek, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea ekarriko luke.*

*EAEk askotan salatu du Euskal Herriko Udaltzaintzako, Ertzaintzak (eta beste polizia batzuk) aurre jubilatzeko aukera edukitzean suposatzen duen marjinazioa. Honek erregulazio baten beharra dagoela berretsi bestetik ez du egiten eta era berean euskal udaltzainak Ertzaintzak eta beste polizia batzuek daukaten baldintzetara ekiparatu beharra. Arrisku berberak, estaldura berbera.*

*Orain arte esandako guztia kontutan hartuta, EAEk, Euskal Udaltzaingoaren erretirorako baldintzak Ertzaintzak dauzkanarekiko ekiparatzea eskatzen du, erretiro adinaren erregulazioan aldaketa bat egin da. Honetarako Erret. Dekretu bat egin beharko litzateke euskal udaltzaingoari ere erretirorako adinean koefiziente murriztaile bat aplikatu ahal izateko.*

*Hrregatik, EAEko Aital Sindikala, mozio hau udal talde guztiek bere egitea eskatzen dugu, plenuan eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.*

**EAEko ordezkaria**

*Jakin nahiko genuke baita ere partidu bakoitzak ze pentsatzen duen eta iritzia pertsonala, sin más.*

### **Alkatea**

Gure botoa aldekoa izango da hemen planteatzen danarekin ados gaudelako. Hori da BMDUren iritzia. Besteek? Norbaitek zerbait gaineratu nahi duen, Iñaki?

### **Iñaki**

Ni abstenitu egingo naiz.

### **Alkatea**

Nik bozkatzera pasa aurretik, 2. eta 3. puntuak esaten dute, "Hernaniko Udalak, Eusko Legebiltzarrari agindua ematen dio", "Hernaniko Udalak, Euskal Udalen elkarteei agindua ematen dio", bueno, eskatu egingo degula, bai, agindua ematea baino, eskatu egingo degula, Bai? Besterik ez bada, bozkatzera pasako gera.

- Aldeko botoak: 10 (8 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
- Kontrako botoak: bat ere ez.
- Abstentzioak: 3 (2 Euskal Sozialistak eta IHI!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- Hernaniko udala, Gizarte Segurantzaren gaine-ko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltzearen alde azaltzen da, Euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 legea onartzea ahalbidetzen duena.
- 2.- Hernaniko udalak, Eusko Legebiltzarrari agin-du ematen dio, era berean Espainiako Gobernuia premiatzeko Gizarte Segurantzak gaitako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 legea onartzea ahalbidetzen duena.
- 3.- Hernaniko udalak, Euskal Udalen elkarteei (EUDL eta UDAIBITZA) agindu ematen die ekintza honi babesa emateko eta ordua helduta berau aurrera eramateko datu eta dokumentuak eman ditzaten.

Beraz, onartuta geratzen da mozioa.

### **14.- JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOAREN BURUZKO MOZIOA. -**

### **Alkatea**

Hurrengo mozioa Juan Carlos Borboikoaren abdikazioaren buruzko mozioa da, puri purian dagoen gaia eta Kistiñek irakurriko digu.

### **MOZIOA**

"Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean



*Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardua zein ondoriozko nozitu gabe, eta zituzten pribilegio eta botere guneak mantenduz, "lotuta eta ondo lotuta" utzi zuten Estatu botereen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeko eskubidea ukatzen zigulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkatzeko dituzte.*

*Eredu politiko hau ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatu herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzerazinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrak eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEk, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.*

*Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi iraunarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez bait da gainditu.*

*Erreforma inposatu zenean irekita zeuden galazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeko erreferenduma egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeko eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeko unea da."*

**Alkatea**

*Honen inguruan, Iñaki?*

**Iñaki**

*Bai, legearen aplikazioa espainolen asunto bat denez, ez dugu bozketan parte hartuko.*

**Alkatea**

*Besterik, Andoni?*

**Andoni**

*Guk ez dugu bozketan parte hartuko. Espainiarrek zer notako estatu buru nahi duten bozkatzea erabakitzeari zoragarri deritzogu, baina guk, ba... Espero dut Ingalaterran aplikatzen dutenean ez digutela*

*esango Hernaniko Udala kontra dagoela Erresuma Batuko estatu buruaren izaerarekin, ez, baina bueno, ba bale.*

*M<sup>o</sup> Jesus*

*Bueno, ni ez naiz monarkia ingelesarekin erreflejatuko baina bueno, kontuan izanda monarkia parlamentario bat daukagula, nire ustez, ba, hitz egiten ari den guztia alde batera, seriotasun pixka bat jarri behar da honetan guztian, ez dut uste hau denik erabakitzeko foro eskumenduna, zeren, halaxe da, abdikazioa formula bat da, arlo legal batzuk daude, gu abstenitu egingo gara, gure ustez Hernaniko Udala ez delako, hain zuzen ere, erregearen abdikazioaz eztabaidatzeko eta errepublikaz edo monarkiaz aritzeko foro egokia, nahiz eta gu, bai alderdi gisa eta bai pertsonalki ere, alderdi zabala garenez, errepublikarrak izan.*

*Alkatea*

*Besterik ez baldin bada. Ziurrenik Ingalaterrako erreginarene abdikazioa tokatzen danean hemen ez degu bozkatuko baino Espainiko erregearenak eragiten digu gure eguneroko bizitzan tamalez eta mozioan planteatutakoa bozkatuko deg:*

- Aldeko botoak: 8 (Bildu).*
- Kontrako botoak: bat ere ez.*
- Abstentzioak: 5 (2 Euskal Sozialistak, 1HI! eta 2 EAJ/PNV).*

*Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:*

*Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Hernaniko Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkari.*

*Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.*

**15.- EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA.** - Alkateak mozioa ikurriko du:

**EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKO MOZIOA**

*Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion -eta ondorioz CAJA VITAL KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantza bezalakoak daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebe baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.*

*Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandum Of Understanding-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota*

*honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.*

*Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.*

*Mozio honen inguruan, iritzirik? Ekarpenik? Ez badago besterik, bozkatu egingo degu.*

- Aldeko botoak: 8 Bildu*
- Kontrako botoak: 5 (2 EAJ/PNV, 2 Euskal Sozia-listak eta IHI!).*
- Abstentzioak: Bat ere ez.*

*Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:*

- 1.- Hernaniko Udalak, korporazio fundatzaile diren Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udaleri eta VIIA KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizazioa baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharizanetara zuzendu dezatela eskatzen die.*
- 2.- Hernaniko Udalak, korporazio fundatzaile diren Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udaleri eta VIIA KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, CAJA VIIA KUTXAKo Gobernu Organoek Arabako jendartearen parte hartzea, bere ordezkari proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste enitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.*
- 3.- Hernaniko Udalak, korporazio fundatzaile diren Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udaleri eta VIIA KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak enitate fundatzaileek, VIIA KUTXAKo langile eta ezarleek eta Arabako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.*
- 4.- Hernaniko Udalak, korporazio fundatzaile diren Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udaleri eta VIIA KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, VIIA KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %11koa izaten jarraituko duelarik.*
- 5.- Hernaniko Udalak, korporazio fundatzaile diren Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udaleri eta VIIA KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.*

- 6.- Hernaniko Udalak Eusko Legebiltzarrari eska-tzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.
- 7.- Honako mozioa Arabako Foru Aldundi eta Bil-tzar Nagusiei, Gasteizko Udalarari, CAJA VITALKUTXAko Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, VITALKUTXAko Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.

## 16.- HAUSTURA HIDRAULIKOA IKERTZEKO ABIAIN DAUDEN BAIMENEN ETETEA. -

### **Asierrek irakurriko du mozioa:**

Fracking bezela ezagutzen den teknika hau Ipar Ameriketara garatua izan da, gasa bilatzeko metodo berri bat omen da. Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apostua egin du eta ia dagoeneko Autonomi Erkidegoan 11 baimen emanak ditugu, gero tramitean beste 6 daude.

Teknika hau ya probatuta dagon lekuetan arazo handik sortu ditu, hala nola edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, airearen kutsadura, lurren okupazio eta putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak, eta gaur egun fracking-ak dakartzan ondorio kaltegarriak hainbat txosten eta ikerketa zientifikoetan egiaztatu daitezke.

Dagoeneko Estatu Batuetako Vermont estatuan ya debekatuta dago, Europan Frantzia estatuak ere debekatu egin du eta Estatu mailan ya ba, Errioxan, Kantabrian eta Nafarroan onartu dituzte lege autonomikoak fracking-a debekatzeko.

Horren aurrean Hernaniko udalerriko mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea da mozio honen helburua. Ordun mozioaren proposamena irakurriko dizuet:

- 1.- Hernaniko Udaltzarak fracking-aren bitartez aztertu, ikertu edo ustiatu daitezken hidrokarburo ez konbentzionaletarako Ikerketa Baimen guztiak bertan behera geratzea eskatzen dio Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoari.
- 2.- Hernaniko Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako iritzia dela eta, jarrera aktiboa har dezan Hernani "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerraren sarreran jarritz.
- 3.- Frackingaren debekua eskatzen duen Herri Ekimen Legegilearen helburuarekin bat egiten duenez, Hernani Udaltzarak udaletxeko harrera bulegoetan sinadurak jasotzeko orriak izango ditu eta herritar guztiak sinatzera gonbidatuko ditu.

### **Alkatea**

Honen inguruan, iritzirik? Ekarpenik? Ez?

Orduan bozkatzera pasako gera. Bai?

- Aldeko botoak: 10 (8 Bildu eta 2 Euskal Sozia-listak).
- Kontrako botoak: 1 HII.
- Abstentzioak: 2 EAJ/PNV

*Beraz, mozioa onartua.*

### ***Alkatea***

*Plenoa bukatu aurretik, bai, gure aldetik behintzat.*

*Aurreko plenoan, maiatzeko plenoan, EAJ-k, bueno Andonik hainbat eskaera eta proposamen egin zitun, bai? Horien artean bazegoen bat pleno aretoa berritzea eskatzen zuena, pleno aretoaren itxura ikusita ba hau berritzea eta txukuntzea eskatzen zuena. Esan horren inguruan proposamen eskaera bat egin degula eta jasotzean horren berri izango degula.*

*Beste bat zan, beste eskaeretako bat zan Garbitania enpresaren kontuak eskatzea. Berez, gaia batzordetik pasa zan, batzordetik tramitatu genduen eta Garbiana inguruko balorazioen txostena eta badezue, bai, nahiz eta hurrengo plenoan ere berriz hitz egingo degu.*

*Beste eskaeretako bat zan kanpoko igerilekuetako tabernan inguruko txostena, txostena ia egina dago eta hori ere bideratu da, bai, eskura dezue, prozedura horren inguruko txostena.*

*Beste puntu bat zan, herritarren harrera zerbitzua martxan jarriko den, udazkenean martxan jarriko den zerbitzu berriari inguruko informazioa. Atzo bozeramaile batzordean hitz egin genduen eta esan bezala, irailean, gauzak zehazterakoan, aurkeztuko deguna formalki batzorde batean.*

*Eta azkenik zegoen zalantza bat edo planteatzen zenduna aurrekontu partehartzaileen talde eragile inguruan eta planteatu zendun kezka bat bazegoelako argazki bat publikatu zana Noticias de gipuzkoan, maiatzan 27an, eta galdetzen zendun aber argazki hau nola egin zan lehenago. Nik aipatu nizun argazkia etzala zuk uste zenuen talde eragile baten ondorengoa, zu gabe egindakoa, nahiz eta jendea berdin jantzita egon. Eta bueno komenatu nizun orduan ere bai, baino ekartzen dizkizut esan bezala argazki hori maiatzan 7an egin zen, proiektuaren aurkezpena egin zanean, eta horretarako kronikaren argitalpena, maiatzaren 10ekoa, argazki bera ateratzen dana, eta DV-k ere maiatzaren 9an publikatutako argazkia; argazki bera da, mundu guztia leku berean dago, espresio berarekin, bai, pixkat ikusteko, argitzeko argazkia maiatzaren 7koa zala.*

### ***Andoni***

*Bueno, nik, zera, plenoa bukatzerakoan galdetu nion galdetu behar nionari ea egia ote zen nik plenoan esandakoa eta zalantzan jarritakoa, eta erabakia neukan pleno honetan zuri barkamena eskatzea, nahiz eta eskaera eta galderarako tarterik ez izan, zeren eta oker nengoen eta esan behar ez nuen zerbait esan nuen, egiaztatu gabe.*

*Bestalde, ba, zorionak desastre hau konpontzeko aurrekontu bat eskatzeagatik.*

### ***Alkatea***

*Onartzen dira diskulpa hoiek, eta gure aldetik besterik ez. Gaur publiko asko degu, gure plenoak ez dira hain jendetsuak izaten eta nahiz eta gaur ez ohiko plenoa izan eta galdera eta eskaeren punturik ez izan, norbaitek zerbait gehitu nahi baldin badu, edo zerbait komentatu nahi baldin badu... Ba ez badago besterik, honekin bukatutzat emango degu plenoa. Ondo pasa sanjuanak eta uztailan berriro elkar ikusiko degu.*

*Orain elkartuko gera momentu batean berdintasun kontseiluko kideak eta alderditakoak, bale?. Mila esker denei eta ondo segi.*

*Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:50 orduetan bukatu da, eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatzen dut.*